

ERAKUSLEIHOAN

Carolak beti esaten zuen kale izkinan gorputza saltzen ez dakienak arima saltzen jakin behar duela. Amari mezetara laguntzen nion aldiro topatzen genuen eliza atarian astrofisikaz eta unibertso paraleloez hizketan. Nik sinpatiazko irribarrea luzatzen nion. Amak ez, ama urduritu egiten zen. Nire besoa are gehiago estutu, eta begirada lurretik altxa gabe pasatzen zen haren paretik, ulertzen ez zituen hitz haiek kutsakorrek izango balira bezala.

Apaizaren sermoiak zigarroaren keaz ordezkatzeko nituenean izaten genuen hizketaldiren bat edo beste. Horrela jakin nuen Carola Baraldi zuela izena. Harrotasunez eta poliki ahoskatzen zuen, gaizki imitatutako italieraz. Baina inoiz ez nion bere benetako izena galdetu, nahi zuena izaten uzten nion.

Limosna eske egoten zen jaiegunero. Jaungoikoan ez, mezetara joandako aitona-amona fededunengan sinisten zuen, elizatik ateratzerako orduan sartzerako orduan baino gehiago. Pekatarietzat Jesukristoren aurrean aitortutakoen barkazioa zen meza ostean emakume hari eskatutakoa ematea. Apaizak kristauen esku-ahurretan limosna itxurako ogia bezala, kristauek txanponak ipintzen zituzten emakumearen esku zatarretan.

Amak ez zion inoiz ezer ematen. Eliza usaina atzetik jarraika genuela urruntzen ginen atetik, eta eskailera parera iristen ginenean “noiz eraman behar dute hau hemendik?” esaten zidan marmarka. Nik ez nion ezer esaten, berari ere nahi zuena izaten uzten nion imitaziozko bisoizko berokiaren azpian. Badira aste batzuk ikusten ez dugula. Eliza atari hobeak aurkitu izana espero dut.

Gaur ez du Carolari buruz ezer esan, falta dela ere ez zuen sumatuko ziurrenik. Eskaileretan beheara sudurra nire berokira hurbildu, eta ohiko soinu esajeratua egin du usaintzeko. Erretzea ez zaiola gustatzen esan nahi dit, eta are gutxiago eliza atarian. Nik ez ulertuarena egin dut beste behin, ulertzeak barru-barruan izorratu banau ere. Isilik jarraitu dugu eskailerak jaisten, elkarri esango genizkiokeenak liseritu nahian.

Bidean ogia erosi, eta zuzenean etxera igo gara. Bazkaltzen geratzeko gonbita egin dit kortesia hutsagatik, baina biok dakigu ez naizela geratuko. Lana aurreratu behar dudala esan diot, duela zortzi hilabete lanetik bota nindutela kontatzeko adorarik gabe oraindik. Masailean ohi baino musu hotzagoa eman, betiko hoztasunari kalekoa gehitu baitzaio gaur, eta sukaldean utzi dut amantala horitua janzen.

Lasaitua hartu dut atea itxi orduko, arnasa berriz biriketan. Piztia kaiolan sartzea bezala da. Zahartzaroak erabat baldartuta du, eta aspaldian ez da kalera bakarrik irtetera ausartzen. Ez nukeela poztu beharko sentitzen dut pozten naizen aldiro; sentitzen dut benetan.

Maleta beltzaren bila pasa naiz etxetik. Sartu-irten azkarra egin dut apropos, ezkaratzeko postontzian pilatzen hasitako abisu eta fakturez ohartzeko denborarik ez izateko. Begiak ukatu dizkiet ez ikusiarena egiteko. Aluak izaki, ordea, begiratu gabe ere ikusi egiten dira.

Ezkaratzeko atearen bestaldean egon arte ez naiz postontzira begiratzera ausartu. Kopeta kristalaren kontra jarrita zelatatu dut gainezka egitear dagoen zirrikitua. Urduri jarri nau, ez amari laguntza eskatu behar niokeela pentsatzeak bezain urduri, baina bai, sabela nahastu zait. Zorionez hotza egiten du, eta arnas estutzen hasiak berehala lausotu dit kristala; begiitsuak, negarrik ez.

Kalean geratu naiz. Hiriaren anonimotasunak normala sentiarazteko eskubidea ematen dit. Jendearen joan-etorrian sartu, eta anabasaren erritmo bizkorra kutsatu zait. Presaka ibili naiz ni ere, norabiderik gabe eta presaka.

Helmuga polita iruditu zait portua. Maleta lurrean utzi, eta nire burua besarkatu dut haize hotzari zirrikituetatik sartzen ez uzteko; inozoa ni. Olatuek zeruari urdina ostu diotela dirudi, eta zeruak ezinbestean soineko grisa jantzi behar izan duela. Itsasontzien kulunka zakarregiaz gozatu dut, begiak irekita lehenik, eta itxita gero. Begiak itxita hobeto usaintzen da portua. Despedida usaina, malko usaina, malenkonia usaina. Erromantiko hutsa bihurtu naiz.

Saxofoia atera dut maletatik. Zahartuta dago, urre koloreak oraindik baliotsua dela gogorarazten duen arren. Maleta beltza bere horretan utzi dut lurrean zabalik, euria ez den beste zerbaitek beteko duen esperantzan. Negua, ordea, ez da kaleko musika-jotzaileen lagun ona, galtzerdi punta bustiekin inork ez baitu kale kantoietako abestiak entzuteko denborarik.

Airea sakon hartu, eta Do-Si-La doinuan kanporatu dut. Bill Evansen kantu bat da, beti izaten da erreperatorioko lehena. Si-Do-Si, eta badirudi haizea nire arnasaren erritmora dabilela. Zoragarria da nota batek bestea ekartzea. Zoragarria da behatzek memoriaren beharrik ez izatea saxofoiaren gainean dantza egiteko. Begiak itxi, eta haizearen koreografia hotza sentitu dut masailetan.

Itsaso tristeak olatuekin txalo jo nahi dit abestirik tristeenak eskaintzen dizkiodanean. Hirugarren piezara arte ez da inor hurbildu. Agure bat izan da txanpona botatzen lehena, eta begiekin eskertu diot keinua. Jendeari normalean ez zaio aurrenekoa izatea gustatzen, utzitakoa zenbat den ikusten delako edo. Gizonezko betaurrekodunak ia pausoa gelditu gabe bota ditu hurrengo bi txanponak. Neska gazte ilehoriak diruzorro ia hutsa hustu du gero. Paseatzen zebilen jubilatuko bikoteak erretiro-pentsioaren euro bat oparitu dit. Eta besapean ogia hartuta pasa den emakumeak okindegian itzulitako hogeitazentimoak bota ditu. Denek erosi dute nire arimaren zati txiki bat, batzuk besteek baino txikiagoa.

Carolak arrazoia zuen: behin arima saldutakoan ez da ezer geratzen. Saltzen dudana nota bakoitzeko arima zati batek ihes egiten didala sumatzen dut, barruan zati txiki bat gutxiago dudala. Sekreturik gabeko izaki sentitzen naiz, bezeroaren aurrean arropak erantzi berri dituen emagaldua bezain agerian; agian hutsal, agian duinez edo agian salduta, eta saltzekorik gabe geratzeko beldurrez beti.

Mutiko begi erraldoi batekin egin dute topo nireek zabaldu ditudanean. Liluraturik dirudi saxofoiaren distira begitan. Presaka doan amari eskutik tiraka ari da gelditzeko erreguka. Berak tira, eta amak tira, nor errendituko lehenago.

Uste ez nuen arren haurra garaile azkenean. Minutu erdiz geratu dira nire parean izoztuta biak: haurra niri begira, ama telefonoari. Abestia amaitutakoan saxofoia ukitzea eskaini diot, eta azkar etorri da amaren eskua abandonatuta. Begiak atera beharrean laztandu du urre kolorea, botoiak zapaltzeko desiatzen, baina zapaltzeko ausardiarik gabe. Amak eskua berriz lapurtu dion arte. Orduan irribarre lotsati bat egin dit eskerrak emateko edo, eta amak patrikako txanponak bota ditu maletara, karitateagatik baino gehiago haurraren entretenimendua ordaintzearen. Eskutik tiraka urrundu du mutikoa berandu dabiltzala argudiatuta.

- Ama, handitan hori izango naiz – ahots inuzente batek urrunetik.
- Zuk asko-asko ikasi behar duzu aitatxo eta amaxok bezala lan on bat edukitzeko – ahots ez hain inuzente batek urrunagotik.

Nire amak ere berdina erantzungo luke. Ez dakit negarrari eusteko gai izango zatekeen ni erakusleihen honetan ikusita. Ez dut haren malkorik ezagutzen, ez dut pribilegio hori izan. Baina negar egingo balu ez zen lastimagnetik izango, lotsagnetik baizik. Auzo-lotsak erreko lioke barrua, igandero mezetatik zigarroa erretzera ateratzen naizenean bezala; eta gero errudun sentiaraziko ninduke, badakit, beti egiten du hori, eta iaioa da horretan.

Ez da bakarra, ordea, ni ere lotsatzen nau nire amaren semea izateak, elkarren aldamenean goazenero gainera. Uguilu ahalguztidun batek puze nau halakoak pentsatzen ditudanean. Iraindua sentitzen naiz, nire burua defendatzeko beharrean eta amari aurre egiteko harrotasunez. Distantziatik beti erabakitzen dut hurrengo egunean egia guztiak aurpegiatzea, hain sentitzen naiz prest... Eta parez-pare jartzen garenean isilik jarraitzen dut. Kikildu, txikitu, hutseratu egiten nau bere presentziak. Nola eliza atarian zigarroaren kea, halaxe desagertzen da nire ausardia ere, baina usainik utzi gabe.

Bizitza eman izana da zor diodan bakarra, hori soilik eta hori guztia. Askotan pentsatzen dut

bizi naizen artean horrela izango dela, hiltzen naizen egunera arte ez dela zorrik kitatuko. Bitartean besterik ez, listua irentsi eta men egin, ahal dela aurpegi onez.

Aita zenak nahi izan zuen musika eskolara has nedin. Handik gutxira hil zen tamalez lan-istripuan. Orduan ere ez nuen ama negarrez ikusi. Gordean egingo zuela pentsatu nahi dut. Nire harridurarako eskoletara joaten jarraitu nuen, amak jendeari hizketarako tarterik eman nahi ez ziolako ziurrenik. Inork ez zezala pentsa aita hil ostean ez genuela musika eskolak ordaintzeko dirurik, niri futbolera jolastea debekatuko bazidan ere oinetako txikiegiek denbora gehiagoz iraun zezaten. Orduan ere isil-isilik obeditzen nion, behatz tolestuekin baloiari ematea mingarriegia egiten zitzaidalako batez ere.

Amari musikak bost axola, baina ezin esan alferrik galdutako dirua zenik berarentzat. Txutxu-mutxu zaleenen isiltasuna eta gizarte-klasean behera ez egiteko eskubidea erosten zituen, duintasunez bizitzeko arnasa bezain beharrezko zituenak.

Momentua iritsi zenean berak aukeratu zuen joko nuen instrumentua. Sendagilearen seme saxofoi-jotzaileak izango zuen zerikusirik hautaketan. Ez zidan sekula galdetu gustuko ote nuen, nik berari ere ez. Arratsaldero entseatu egin behar nuela baino ez zidan errepikatzen, beti irakaslearen errietaren mehatxupean. Logelako atea itxi, eta zabaltzen zuen arte egoten nintzen saxofoiaren konpainian; gustuko izatera kondenatuta nengoen biziraun nahi banuen.

Orduak ematen nituen leihotik ikus nezakeen mundu zati txiki hari begira. Hain zirudien askea eta zorionsua lauki-formako kristal hartan gertatzen zenak... Eskolatik irtetean gozotegiko erakusleihoari bezalaxe begiratzen nion kaleari inbidiaz; erakusleihoan ni nengoela ohartu gabe, begiratu noiz izango zain. Ama gelara sartu, eta tarte batez ni entzutera gelditi zedin desiatzen nuen esperantza gutxirekin. Afalordua zela esateko baino ez zuen atea zabaltzen, ordea. Inoiz edo behin mahaia jartzen laguntzen ari nintzaiola nik jotako piezaren bat sumatzen nion ezpainenetan, eta platerean jarriko zidanak baino gehiago betetzen ninduen hark. Ez entzunarena egin eta isilean gozatzen nuen nahigabeko errekonozimendu hartaz.

Asfaltoak xurgatu ditu lehen euri tanta lodiak. Kantua amaitzera itxaron gabe apartatu dut saxofoia ezpainenetatik, ez dut uste inork faltan sumatuko duenik. Maleta beltzetik jendearen borondatea bildu, eta patrikan gorde dut. Txanpon asko eta diru gutxi. Saxofoia benetako urrea balitz bezala gordeta agurtu dut portua, patrikak eta begiak pisutsuegi.

Denak berandu doaz eta berandu datoz. Euriak kaleak bizkortu ditu. Jendearen joan-etorriak horma grisetara itsatsi dira, denak teilatu izkinetako babesaren bila. Aterkia hartzeaz oroitu diren zuhurrenek baino ezin dute kalean lasai ibili, baina beraientzat ere putzuak gero eta handigoak dira.

Erakusleihoei gehiegi erreparatu gabe iritsi naiz etxera, nire buruaren islaz lotsatu beharrik ez izateko. Ezkaratze irristakorrera sartu orduko lehen doministikua egin dut; eskaileretan bigarrena, eta hirugarrenaren gogoz geratu naiz: portuko haize hotzaren faktura ere iritsi da nonbait.

Etxea handia eta hotza da, neguan batez ere. Erosi nuenean ere halaxe zen, baina aukera ona zela uste zuen amak. Hipoteka ere neurri berekoa du: handia. Kontu korronteko aurrezkiak amaitzean bihurtuko da handiegia, eta orduan fakturarik garestiena amaren begietako auzo-lotsa izango da bere seme ezgauzari begira.

Giltzak utzi eta argia piztu dut. Berokia kentzeko keinua egin dut, keinua bakarrik. Leihora hurbildu eta nire buruari begira geratu naiz kristalaren aurrean. Amaren begirada berarekin topo egin dudan arte. Beldurtu egin naiz, eta argia itzali dut, bihar eguzkia dohainik aterako da.